

Egoeraren Azterketa




Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ **Ekonomiak hazten jarraitzen du**
- ✓ **10.974 lanpostu gutxiago**
- ✓ **Behin-behineko enplegu tasa Europakoaren bikoitza, oraindik ere**
- ✓ **580 euro gutxiago soldatapeko langile bakoitzeko, Nafarroan**
- ✓ **EAE: 153,2 milioi euro gutxiago lehen mailako arretarako**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATUA	2007	12 HILE LEHEN.	2006 BUK.
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (16-65 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA)					
JARDUERA TASA	%	07 I	73,3	72,9	74
" 15-EBn	%	06 IV	71,7	71,2	71,2
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	07 I	1.262.600	1.237.900	1.273.574
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	07 I	1.015.000	992.200	1.023.200
ALDI BATERAKO TASA	%	07 I	27,8	27,8	29,2
" 15-EBn	%	06 IV	14,9	14,5	14,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	KOPURUA	07 I	85.600	98.500	84.900
LANGABEZI TASA	%	07 I	6,3	7,4	6,2
" 15-EBn	%	06 IV	7,5	8,2	8,2
GAZTEEN LANGABEZI-TASA	%	07 I	14,9	22	19,1
" 15-EBn	%	06 IV	15,7	16,6	16,6
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA	%	07 I	8,4	9,6	8,8
" 15-EBn	%	06 IV	8,4	9,1	9,1
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-API	347.669	320.598	1.094.469
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	07 URT-API	37.919	31.639	107.139
ENPLEGU ERREGULAZIOA					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	07 URT-OTS	150	75	392
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-OTS	1.847	1.950	6.748
LAN ISTRIPUAK					
BAJADUN LANGILEAK	KOPURUA	07 URT-MAR	18.492	17.981	65.496
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	07 URT-MAR	154	169	618
ESKAINZA ETA ESKARIA					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	07 URT-MAR	5,2	8	4,1
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	06 URT-AZA	4,5	-	-
BPGa EAEn	% ALD.	07 I	4,1	4,4	4,1
BPGa NAFARROAn	% ALD.	07 I	4,2	3,7	4,1
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	07 I	4,3	3,5	4,2
BPGa 15-EBn	% ALD.	07 I	3	2,4	3,3
PREZIOAK					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	07 API	2,4	3,9	2,7
" 15-EBn	%	07 API	2,2	2,3	2,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.					
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, EIN.					
2007/5/21 eguneraturiko informazioarekin			106. zbk. Egoeraren Azterketa 2007ko Ekaina		



Aurkibidea

SARRERA	3
GIZARTE ETA EKONOMIA	
EGOERAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiak hazten jarraitzen du ..	4
2. Ekonomia hazi arren, enpleguak behera egin du.....	5
3. Behin-behineko enplegu tasa Europakoaren bikoitza da, oraindik ere	5
4. Emakumeek areago nozitzen dute langabezia.....	6
5. Lan-kontratuetan iruzurra indarrean	6
6. Lan-istripuak eta enplegu-erregulazioa: amaierarik gabeko fenomenoak	6
PUNTAKO GAIAK	7
1. Errentaren banaketa Nafarroan	7
2. Osakidetza: gainbeheraren erradiografia	7

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko 2007ko lehenengo hiru hilakoko datuak aurkeztuko ditugu. Datuon arabera, ekonomiak hazten jarraitzen duen arren, enpleguak ez du joera bera erakusten. Hileko puntako gaitetan, Nafarroako soldatiko biztanleriari errentaren banaketan dagokion partaidetzak izan duen larma azalduko dugu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistema publikoaren zenbait gabezia ere.

* Txosten hau 2007ko maiatzaren 21ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa


1. Ekonomiak hazten jarraitzen du

Hego Euskal Herriko (HEH) industri-jarduerari buruzko datuak positiboak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), **Produktio Industriaren Indizea** %5,2 hazi zen urtarriletik martxora, hazkundera 2006ko aldi berekoa baino txikiagoa (%8) izan bazen ere. Nafarroako Jarduera **Industrialaren Indizeari** buruz argitaratutako azken informazioak –nahiko berandu argitaratu ere– %4,5eko gehikuntza agertzen du 2006ko urtarriletik azarora bitarte.

Bestalde, Nafarroako **Barne Produktu Gordina** %4,2 hazi da 2007ko lehenengo hiruhilekoan, **EAEko BPGa** (%4,1eko hazkundera) baino hamairen bat gehiago, hain zuzen ere.

Hazkunderok *Espainiako Estatuko*en antzekoak dira, horko barne produktu gordinak %4,1eko gehikuntza izan baitu. 15 kideko Europar Batasuneko BPGaren hazkundera (%3koa) ez da hain handia izan, baina, hurrengo grafikoak erakusten duenez, HEHko hazkunderaren eta Europakoaren arteko diferentzia askoz txikiagoa da orain: 2005aren hasieran, HEHko edo Espainiako Estatuko BPG igoerak 15-EBkoak halako bi ziren; orain, berriz, puntu bateko aldea dago, gutxi gorabehera.

BPGAREN URTE ARTEKO GEHIKUNTZAK. 15-EB, ESPAINIAKO E., EAE ETA NAFARROA (2005-2007)



Iturriak: Eurostat, INE, Eustat, NEI

2007ko lehenengo hiruhilekoko Balio Erantsi Gordina (BEG) **sektorez** sektore aztertzean ikus dezakegunez, **EAEn**, BEGaren %60,3 zerbitzuen sektoreak eragin du; %29,6, industriak; %9,1, eraikuntzak, eta %0,9, nekazaritza eta arrantza sektoreak. 2005eko eta 2006ko datuekin alderatuta, zerbitzuen sektorearen pisua murriztu eginda pixka bat, eta industria eta eraikuntza sektoreenak gehikuntza txikia izan du, nekazaritza eta arrantza sektorearen ehunekoa bere horretan geratu delarik.


Nafarroan, aurtengo lehenengo hiru hilabeteetako BEGaren %59,7 zerbitzuek sortarazi dute; %27,6, industriak; %10,2, eraikuntzak, eta %2,4, nekazaritzak eta arrantzak. Zerbitzuek eta eraikuntzak BEGean duten pisua hazi egin da 2005ekoaren eta 2006koaren aldean; industriaren eta nekazaritza eta arrantzaren portzentajeek, ostera, urripen txikia izan dute.

SEKTORE BAKOITZARI DAGOKION BEG EHUNEKOA. EAE ETA NAFARROA, 2005-2007

	2005 (%)	2006 (%)	2007 - I (%)
EAE			
Zerbitzuak	60,8	60,5	60,4
Industria	29,3	29,4	29,6
Eraikuntza	8,9	9,1	9,1
Nekaz. eta arrantza	1,0	1,0	0,9
NAFARROA			
Zerbitzuak	59,4	59,7	59,8
Industria	28,4	27,8	27,6
Eraikuntza	9,5	10,0	10,2
Nekaz. eta arrantza	2,7	2,5	2,4

Iturria: Eustat, NEI

Prezioen urte arteko gehikuntza, bestalde, %2,4koa izan da 2007ko apirilera bitarte, hau da, orain artekoa baino txikiagoa eta Europar Batasuneko batez bestekoaren (%2,2) antzekoa. Beraz, oraingoz behintzat, prezioen etengabeko igoera moteldu egin dela dirudi, eta EBkoaren pareko hazkunde-mailan gabiltza, une honetan.



2. Ekonomia hazi arren, enpleguak behera egin du

Lanpostua duten edo lan bila dabilen biztanleen ehunekoa neurtzen duen **jarduera-tasa** %73,3koa izan da urteko lehenengo hiruhilekoan, hots, 2006ko azken hiruhilekoan baino 0,7 puntu baxuagoa. Besterik esaten badigute ere, lan egiteko adinean (16 eta 65 urte artean) dauden biztanleen jarduera-tasa 15 kideko Europar Batasuneko batez bestekoa baino 1,6 puntu altuagoa da, 2006ko laugarren hiruhilekoan (enpleguari buruzko Europa mailako azken informazioa ordukoa da) 15-EBko tasa %71,7koa izan zen eta. Gizonen jarduera-tasa (%82,3) 15-EBkoa (%79,2) baino 3,1 puntu altuagoa izan zen, eta emakumeena (%64,1) Europakoaren antzekoa (15-EBkoa %64,2koa izan zen). Gizonen eta emakumeen jarduera-tasen arteko aldea 18,2 puntukoa da HEHn, eta txikixeagoa 15-EBren kasuan (15 puntukoa, zehazki).

2007ko lehenengo hiruhilekoan 1.262.600 **biztanle zegoen lanean**: 728.200 gizon (%57,7) eta 534.400 emakume (%42,3). Hiruhilekoan zehar, 10.974 lanpostu suntsitu dira, 5.623, gizonen kasuan, eta 5.351, emakumeei dagokienez. Hortaz, lanpostuen gutxitzea ez dator bat ekonomiaren bilakaera onarekin, eta antzera banatu da gizonen eta emakumeen kolektiboen artean.

Sektorez sektore aztertuta, 799.700 lagun ibili dira lanean zerbitzuetan (guztizkoaren %63,3); 310.100 lagun (%24,6) industrian; 125.200 (%9,9) eraikuntzan, eta 27.800 (%2,2) nekazaritzan, abelazkuntzan eta arrantzan. Eraikuntza sektoreak 4.400 enplegu gehiago izan ditu hiruhilekoan, eta nekazaritza, abelazkuntza eta arrantza sektoreak, 1.300 gehiago; industrian, aldiz, 4.600 lanpostu galdu dira, eta zerbitzuetan, 11.800.

Enplegu-tasa (lanpostua duen biztanle portzentajea, alegia) %68,6koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu baxuagoa, baina 15-EBkoa baino 2,4 puntu altuagoa. Gizonen enplegu-tasa %78,4koa izan da, eta emakumeena, %58,7koa, bi generoen arteko 19,7 puntuko diferentzia erakusten duena. Enplegu-tasan generoen artean ageri den alde hori jarduera-tasakoa baino handixeagoa da; horrek esan nahi du bi kolektiboen jarduera-

tasa berdintsua izaki ere, emakumeek enplegua aurkitzeko aukera gutxiago dituztela.

Soldatapeko biztanleak 1.015.000 izan dira: 560.000 gizon (%55) eta 455.000 emakume (%45). Soldatapeko biztanleriak 8.000 laguneko urripena izan du, eta soldatakoa ez denak (autonomoak eta abar), 2.974 lagunekoa.

Lanean dabilen 100 pertsonatik 80,4 soldatapekoak dira, 76,9, gizonei dagokienez, eta 85,1, emakumeen kasuan. Beraz, soldatako enpleguetan diharduten emakumeen portzentajea gizonena baino handiagoa da.


3. Behin-behineko enplegu tasa Europakoaren bikoitza da, oraindik ere

Behin-behinekotasun tasa %27,8koa izan da, gizonena %24,3koa eta emakumeena %32koa. Iazko zifren aldean, tasa orokorrak 1,4 puntuko jaitsiera izan du, gizonenak 0,9 puntukoa, eta emakumeenak 2,1 puntukoa.

2007ko lehenengo hiruhilekoan, 17.000 langile gutxiago zegoen aldi baterako kontratuaz, eta soldatapekoak ere 8.000 gutxiago izan dira. Zalantzarik gabe, enpleguaren bilakaeraren eta behin-behinekotasunaren artean badago lotura: enplegua hazi edo urrituz gero, behin-behinekotasuna ere hazten edo urritzen da. Izan ere, soldatapeko biztanleriaren zati bat beharrezko enplegu kantitatea doitzeko koltxoi gisa erabiltzen da, aldi baterako kontratuen menpe jardunaraziz.

Jaitsiera gertatu arren, behin-behinekotasun tasa oso altua da oraino, eta bikoitza egiten du Europakoa. Zehatz esateko, 15-EBko biztanleriaren behin-behinekotasun tasa orokorra (%14,9) HEHkoa baino 12,9 puntu baxuagoa izan zen; gizonena (%14,2) bertokoa baino 10,1 puntu beherago egon zen, eta emakumeena (%15,7), 16,3 puntu beherago. Berrito ere, emakumeen kolektiboak jasaten ditu Europar Batasunarekiko jauzi handienak.

**BEHIN-BEHINEKOTASUN TASA OROKORRA,
GIZONENA ETA EMAKUMEENA.
HEH (2007KO I HIRUHILEKOA) ETA 15-EB
(2006KO IV. HIRUHILEKOA)**



Iturriak: INE, Eurostat

4. Emakumeek areago nozitzen dute langabezia

Langabeak 85.600 izan dira urteko lehenengo hiruhilekoan: 36.400 gizon (%42,5) eta 49.200 emakume (%57,5). 2006ko ekitaldiaren amaierako datuekin konparatuta, 700 langabe gehiago egon dira; 4.100 gizon gehiago eta 3.400 emakume gutxiago.

Jarduera-tasa, jaitsi beharrean, bere horretan geratu edo igo balitz, langabeen kopurua are gehiago handituko zatekeen.

Langabezia-tasa %6,3koa izan da, 15-EBkoa (%7,5) baino 1,2 puntu baxuagoa, hain zuzen. Gizonen tasa (%4,8) Europakoa baino 2 puntu beherago egon da, eta emakumeena (%8,4) Europakoaren parean. 15-EBn, sexuen arteko diferentzia 1,6 puntukoa delarik, HEHn, berriz, 3,6 puntukoa da.

Gazteen langabezia-tasa %14,9koa izan da (15-EBko %15,7aren aldean), eta 25 eta 34 urte arteko biztanleena, %6,8koa.

Langabezia-tasaren *bilakaera* aztertzean ikus dezakegunez, hiruhilekoan 0,1 puntuko igoera egon da; emakumeen langabezia-tasa 0,4 puntu jaitsi da, eta gizonena 0,6 puntu igo.

5. Lan-kontratueta iruzurra indarrean

Aurtengo apirilera bitarte, 347.669 lan-kontratu sinatu dira, 2006ko epealdi berean baino 27.071 gehiago, alegia. Kontratu horietatik 37.919 baino ez dira mugagabeak izan, hau da, urtebete lehenago baino 6.280 gehiago.

Aldi baterako kontratuei guztizko kopuruan dagokien portzentajea %89,1ekoa da, hots, 2006ko urtarrietik martxora bitartekoa baino puntu bat txikiagoa, baina, hala ere, agerian uzten du aldi baterako kontratuen gehiegizko erabilera.

Etorkinen egoera are okerragoa da; izan ere, arauzko lan-egoera dutenak bakarrik kontuan hartuta, aldi baterako kontratuak guztizkoaren %91,1 dira.

6. Lan-istripuak eta enplegu-erregulazioa: amaierarik gabeko fenomenoak

Urteko lehenengo hiruhilekoan, 18.492 lan-istripuak eragin dute baja, 2006ko lehenengo hiruhilekoan baino 511 gehiago, hain zuzen ere. Istripu larriak 134 izan dira (12 gutxiago), eta hildakoak utzi dituzten istripuak, 20 (3 gutxiago).

Datu onartezinak agertzen segitzen duen fenomeno hori behin-behinekotasun eta azpikontratazio-tasa altuek eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko legea ez betetzeak eragiten dute batez ere, hori guztia enpresarien mozkinak ugaritzearren.

Urteko lehenengo bi hilabeteetan, **enplegua erregulatzeko** 150 espediente fitxa baimendu dira, hots, 2006ko aldi berean baimendutakoen bikoitza. Espedienteon ondorioz kaltetutako langileak 1.847 izan dira, hau da, iazko aldi horretan baino 103 gutxiago.



1

Errentaren banaketa Nafarroan


Ondorengo grafikoak Nafarroako errentaren banaketak 2000ko urtealditik 2006ra artean izan duen bilakaera erakusten du.

2000n, Nafarroako ekonomian sortutako 100 eurotik 47,4 soldatakoen lansariak ordaintzeko erabili ziren. Kopuru hori murriztuz joan da, batez ere 2004tik aurrera, eta 2006an 100etik 46,5 euro izan ziren xede horretara bideratu zirenak. Hortaz, aztertzen ari garen aldiaren amaieran, hasieran baino 0,9 BPG puntu gutxiago zuzendu ziren soldatakoen lansarietara, hau da, 133,8 milioi euro gutxiago, dirutan adierazita.

2006aren amaieran soldatapeko biztanleak 230.600 zirela kontuan hartuta, 2000ko ekitaldiko partaidetza mantendu balitz, benetan eskuratutakoak baino 580 euro gehiago egokituko zitzaizkion soldatapeko bakoitzari.

Ustiapen-soberakin gordinaren bilakaera, berriz, bestelakoa izan da, 2000n BPGaren %44,2koa izatetik 2006ko %45,2ra igo da eta; hau da, 159 milioi euroko gehikuntza izan du.


ERRENTAREN BANAKETA. NAFARROA, 2000-2006



Iturria: NEI

Informazio horrek, halaber, **BPGak** izan dituen gehikuntzak aztertzeko eta aurreko grafikoan erreparatu diegun bi aldagaiekin **erkatzeko** ere balio digu. BPGa %48,8 hazi da Nafarroan 2000tik 2006ra; soldatakoen lansariak 2,7 puntu gutxiago handitu dira (%46,1). Ustiapen-soberakin gordinak, berriz, %52,1eko gehikuntza izan du aztertutako aldian, hau da, BPGa baino 3,3 puntu gehiago hazi da.

BPG GEHIKUNTZAK, SOLDATAKOEN LANSARIAK ETA USTIAPEN-SOBERAKIN GORDINA. NAFARROA, 2000-2006



Iturria: NEI

2

Osakidetza: gainbeheraren erradiografia

Atal honetan, EAEko osasun-sistemari buruzko zenbait aldagai jorratuko ditugu. Hasteko, Europan gaixotasunei aurre egiteko biztanleko gastatzen diren diru-kopuruak konparatuko ditugu, eta, ondoren, lan-kargarekin edo osasun-gastuarekin zerikusia duten aldagai batzuk aztertuko ditugu.


a) EBko AZKENAK, BIZTANLEKO GASTUARI DAGOKIONEZ

EAEen, osasuneko gastura bideratzen den BPG portzentajea 15-EBko txikiena da, baita Espainiako Estatukoa baino txikiagoa ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak dioen arabera, biztanleko osasun-gastua, eurotan neurtua, Estatukoa baino handiagoa da. Eta, berez, hala da, bai,

EAE, gaixotasunari aurre egiteko, 1.365 euro gastatzen baitira biztanleko, eta Estatuan, aldiz, 1.126 (239 euro gutxiago).

Baina Europar Batasunarekin konparatuta, EAEko gastuak Espainiakoa, Greziakoa (973 euro) eta Portugalekoa (970 euro) baino ez ditu gainditzen, gainerako estatuak diru gehiago gastatzen baitute, biztanleko, osasunean. Europar Batasuneko batez besteko osasun-gastua EAEkoa baino %43,6 handiagoa da, biztanleko, batez beste, 1.960 euro gastatzen dira eta (595 euro gehiago). EAEk EBrekiko duen defizita Espainiako Estatuarekiko duen superabitaren bikoitza baino handiagoa da.

GAIXOTASUNERA ZUZENDUTAKO DIRUA (€) BIZTANLEKO. 2004



Iturria: Eustat

b) LEHEN MAILAKO ARRETA: KARGA HANDIAGO, ZUZKIDURA TXIKIAGO

Lehen mailako arretako jarduera aztertzean, hazkunde nabarmena ikus daiteke azken urteotan zehar. Zehazki, **kontsulten kopuruaren bilakaera** honako datu hauek jartzen ditu agerian:

- Sendagile bakoitzak urtean egiten dituen *kontsulten kopurua* 4.656tik 4.830era igaro da 1993 eta 2005 artean; hau da, %3,7ko gehikuntza izan du.
- *Medikuntza orokorreko* kontsultak 6.316 izatetik 6.321era pasatu dira aztertutako epealdian, hau da, %0,1 ugaritu dira.
- Hazkunderik handiena *pediatriako* kontsulten kopuruak izan du, %20,9koa, hain zuzen ere (1993an 4.351 kontsulta, eta 2005ean 5.259).

SENDAGILEKO KONTSULTA KOPURUAREN BILAKAERA. LEHEN MAILAKO ARRETA, EAE, 1993-2005

	1993	2005
Guztira	4.656	4.830
Medikuntza orokorra	6.316	6.321
Pediatria	4.351	5.259

Iturria: Eustat

Osasun arloko jarduera areagotu egin den arren, lehen mailako arretara zuzentzen diren baliabide ekonomikoen bilakaera negatiboa izan da. Hona hemen:

- Lehen mailako arretako *gastua* BPGaren %0,9tik %0,67ra gutxitu da 1993 eta 2005 artean. 2005ean 1993ko BPG ehuneko bera gastatu balitz, 153,2 milioi euro gehiago gastatuko ziren esparru horretan.
- *Langile-gastua* 1993an gastu osoaren %0,86 izatetik 2005ean %0,83 izatera igaro da. Beraz, langile-gastuak lehen mailako arretako gastu osoan zuen pisua urritu egin da.
- Era berean, *langile-gastuan* egiten den *esfortzua* ere murriztu da, 1993ko BPGaren %0,77tik 2005eko %0,56era, hain zuzen ere. Urripen horren zioz, 145 milioi euro gutxiago bideratzen dira xede horretara. Horrek argi uzten du lehen mailako arretako gastuaren murrizketa langile-gastuaren kontura egin dela, batez ere.

ADIERAZLE EKONOMIKOEN BILAKAERA (%). LEHEN MAILAKO ARRETA, EAE, 1993-2005

	1993	2005
Gastua / BPG	0,90	0,67
Langile-gastua / Gastu osoa	0,86	0,83
Langile-gastua / BPG	0,77	0,56

Iturria: Eustat